

Sexu gunea berriro politizatzea egungo arte jardunetan mintegian eman zuen hitzaldian zehar, Beatriz Preciadok gaur egun lantzen ari den eta laster aterako duen "Ficciones somáticas" liburuan argitaratuko diren ideia batzuk jarri zituen mahai gainean. Azaldu zuenez, egiten ari den ikerlanaren gunea *Agnesen* kasua da. 1999an *Agnesek* Los Ángelesko klinika batera jo du, eta medikuek genero-disforia diagnostikatu diote, hau da, ez dagokion genero batekin identifikatzen da. Bere mediku historialean jasota dagoenaren arabera, "Agnes benetako hermafroditismo kasu bat da". Mediku eta psikiatra taldeak aitortu egin dio baginoplastia terapeutiko baterako duen eskubidea, hain zuzen identitate hormonalaren eta identitate fisikoaren arteko oreka berreskuratzearen.

Beatriz Preciadoren iritziz, historia hau bi modutan irakur liteke: diskurtso mediko tradizionalaren arabera, *Agnesen* historiak sexualitate-arteko arazo bat azaltzen du, medikuntzak erantzun arrakastatsua ematen jakin duen bat. Baina diskurtso mediko legalaren genealogia kritiko bat egiten badugu, ematen du gorputzen eta sexualitatearen kontrola eraginkortasun goreneko mailara iritsi dela.



Analisi foucaultarrari jarraiki, badirudi kritikatu egin beharko genukeela aparatu biopolitikoek zein erraz zurgatu duten *Agnes*, eta erresistentziaren goratzera, Beatriz Preciadok adibide gisa Herculine Barban jartzen digun erresistentzia horren goratzera jo beharko genukeela. Alabaina, baieztapen hau konplexuago egiten da, urte batzuk geroago, ebakuntzaren ondotik, *Agnesek* bigarren kontakizuna egiten duenean, ezen honetan barregarri utziko ditu transexualek jasaten dituzten diagnostikorako teknika zientifikoak. *Agnesek* dio gazte maskulinoa dela anatomiari begiratuta, eta nerabezaroaren hasieran ekin ziola bere amari menopausiarako tratamendu gisa errezetaz emandako estrogenoak hartzen. Agnes/Steve estrogenoak kontsumitzen hasiko da, bere arreba pilula hartzen hasiko den garai berean. Berak azaltzen duenez, "neska izan nahi izan nuen beti".

Bigarren kontakizun honek, Beatriz Preciadoren arabera, zalantzan jartzen du Foucaulten teoria, baina baita Judith Butlerren nortasun performatiboaren teoriaren argudio-ardatz zenbait ere, sarritan horietara mugatu den arren queer teoria.

Beatriz Preciadok bere saioan azaldu zuen moduan, Foucaultek planteatu zuen bioboterearen teoriak bi arazo ditu gaur egungo testuinguru politiko-sexualean erabiltzeko unean. Gaur egun anormalen gorputzak, Foucaultek *Vigilar y castigar* lanean aipatzen duen otzantasun horretatik zeharo urrun, potentzia politiko bihurtu dira eta, beraz, subjektibazio forma berriak sortzeko aukerak dira. "Foucaultek ez du kontuan hartzen 50eko azken urteetan zehar gertatutako sexualitatearen eraldaketa multzo bat, eta, nire ikuspegitik, eraldaketa horiek hirugarren episteme bat eskatzen dute, teknologiek gorputzean duten eragina kontuan hartzeko; post-maneysta deituko diot episteme horri, Maney doktorearen aipamena eginez". Hirugarren sexualitate-eredu honen premiatasun indizea "genero" nozioaren asmakuntza da, ez baitzuen feminismoak sortu, baizik eta 40ko urteetako diskurtso medikuak. Maney doktoreak 1947an asmatu zuen genero nozioa, eta termino honen malgutasun teknologikoa eta sexuaren zurruntasuna aurrez aurre jarri zituen. Maneyk 1947ko artikulua batean erabili zuen lehen aldiz hitz hau; artikulua sexu-arteko, hau da, dirudienez zehaztu gabeko genitalez jaiotzen diren umeen generoa hormona eta kirurgia bidez aldatzeko aukerari buruzkoa da.

Thomas Laceurren diskurtso anatomikoari jarraituz gero, esan dezakegu sexu-aldea ikusizko irudikapenerako tekniken bidez eraikitze prozesu hau XVII. mendean abiatu zela. Laceurrek dioenez, sexu-aldea medikuntza modernoak sortutako fikzio bat da. Beatriz Preciadoren iritziz, "haren analisiak duen alde interesgarria zera da, ondorio ateratzen duela XVII. eta XVIII. mendeetako ekonomia politiko burges berriak harreman natural berriak ezarri beharra zuela maskulinitasunaren eta femininitasunaren artean, emantzipazio mugimendu feministaren aurrerapenak konpentsatzera begira".



XIX. mendearen amaiera aldean, sexuaren egia irudikapenaren teknologia berri baten bidez produtzeko da, argazkiaren bidez alegia. Teknologia berri honen lehenbiziko erabiltzaileak pornografia eta irudikatze anatomiko-medikoa izango dira. Niaren egia mugituko egingo da, aurpegitik sexu-organoetara. Une horretatik aurrera ez dago atzera egiterik, medikuntzak agerian utzi du bere izaera konstruktibista, erresistentziarako eta ekintza politikarako forma berriei ere atea zabalduz.

Baina *Agnesen* kasuak ez du soilik Foucaulten botere teoria jartzen zalantzan, baizik eta baita queer teoriak landu duen generoaren performance gisako kontzepzioa ere.

Agnesen kasua birjabetze performatiboaren kasutzat uler daiteke, Beatriz Preciadoren hitzetan. "Psikiatren aurrean jartzen denean, dokumentazio politiko-diskurtsibo garrantzitsua darama, transexual zenbaiten autobiografiak ezagutzen ditu, eta protokolo medikuak ere parean dituen medikuek berek baino hobeto ezagutzen ditu", adierazi zuen. *Agnesek*, dokumentazio hau erabiliz, gauzatu egingo du gay, lesbiana, transexual eta transgenero komunitateak sexu-identitatea produzitzeko teknika performatiboaz birjabetzeko prozesu bat; izan ere, ordura arteko eraikuntzak anormal edo maltzurerekin identifikatzen zituen komunitate horiek. Ildo honetatik, Beatriz Preciadoren iritziz queer esparruan koka genezake fikzio trafikoa hau, genero-enuntziatu batzuk diskurtso medikuaren autoritatetik erauziko dituen trafikoa hau; eta erauzi ostean, orain bere burua aditutzat duen jakinduria-subjektu berri batek erabiliko ditu enuntziatuok. *Agnes* aditua da bere eraldaketa prozesuan.

Baina analisi performatiboa zeharo produktiboa izan den bitartean estrategia politikoak, autodeterminaziorakoak, eta birreszenaratze eta birjabetze prozesuak sortzeko, ez da nonbait nahikoa izan *Agnesen* kasua azaltzeko. Beatriz Preciadoren iritziz, "*Agnesen* kasua ulertzeko, analizatu egin beharko ditugu, ezinbestean, sexu-artekotasunaz hark egiten duen imitazioa naturaltzat hartu ahal izatea eragingo duten inskripzio-prozesu teknologikoak". Kontua ez da soilik generoaren izaera konstruktiboa adieraztea baizik eta, haratago joz, eraikuntza honetan parte hartzeko aukera eskatzea, halako mailan ezen naturaltzat hartu ahal izango diren irudikapen somatikoaren formak sortuko baitira. *Agnes*, Beatriz Preciadoren hitzetan, biodrag bat da. Bere gorputzak berak burutzen du imitazio prozesua. Azken batean, *Agnes* kultur artefaktu bat da, organikoa, ingerada somatikoa duen fikzio bat.

CC

Testu hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago. Kopiatu, banatu eta jende aurrean erakuts dezakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu.